

Kostuen egitura

- **Kostu finkoak:**

- Aplikazioa sortzen duen enpresari hilero ordainduko diogun kopuru finkoa.
- Guk lan egingo dugun lokalaren alokairua (lokal txiki bat izango da, bulego baten antzekoa ordenagailuak eta telefonoa duena), eta bertako fakturak: elektrizitatea, ura. Bulegoan egongo diren baliabideak (WiFi-a, ekipo informatikoa eta telefono linea).
- Gure enpresako langileen soldata.

- **Kostu aldagarriak:**

- Aplikazioa sortzen duen enpresari, ordutegitik kanpo egindako bilerengatik (aplikazioa modernizatzeko, datuak aldatzeko edota ezusteko arazoak) ordaindu beharrekoa.

Gure enpresaren interes handiena **ez da kostuak minimizatzea** izango, baizik eta bezeroari eskaintzeko **balioa sortzea** (gure zerbitzuaren kalitatea zainduz). Horretarako asko inbertituko dugu aplikazioa modernizatua eta pertsonalizazio-maila handi batekin mantentzeko, hori baita gure lehentasuna.